

# Anteroren txamarrotea

Zenbat aldiz ez ote dugu kantatu *Antero(re)n txamarrotea*, eta zenbat aldiz ez ote dugu zalantza egin zelan jarraitu: *Kaiserren bibotea*, *Sinkerren bibotia*, *Frankoren bibotia*.

Jarduera honetan jakingo dugu Xabier Gezuraga lekeitiarrari esker -Eibarko Udal Euskaltegioko irakaslea bera- zein den kantaren hitzen jatorria.

## Jardueraren helburua:

Berbaldiaren mezua norbere aurretiko ezagutzarekin lotzea:

- Elkarrizketak entzun ondoren, eskatutako datu zenbait jasotzeko gai izango da ikaslea.
- Elkarrizketan entzundakoa berresateko gai izango da ikaslea.

## Jardueraren prozedura

### 1. Kanta entzun:

[Anteron txamarrotia](#) abestia jarri eta galdetu ikasleei ea abestia ezagutzen duten, ea inoiz abestu duten, ea non abesten den...

Ondoren, abestiaren hitzak eman (egoki baderitzozu)

*Antero(re)n txamarrotia*

*“Sinker” en bibotia (bibotea)*

*haretzek ei (omen) dauko/a*

*preso tximinoia” (bis)*

*lalala lalala...*

Arreta jarri abestiaren hitzetan aipatzen diren bi izenetan: *Antero* eta *Sinker*; baita aipatzen diren hiru gauzetan ere, txamarroti(e)a, biboti(e)a eta tximinoia (txipiroia). Ikasleei galdetu ea zer dakiten hitz horien inguruan.

Abestiaren partitura [helbide honetan](#) dago eskura.

## 2. Kantaren inguruko informazioa jaso:

- Bi talde egin.
  - a) Talde bati IKASBIL atariko [Lekeitioko txamarrotea](#) bideo-erreportajea ikusarazi.
  - b) Beste taldeari “[Antero eta Sinkeren istorioa](#)” audioa entzunarazi, Xabier Gezuraga lekeitiar irakaslearekin grabatutako elkarrizketa.

Ataza bukatzean, ikasle guztiek jakin behar dute Antero eta Sinker nor ziren, nongoak ziren eta zer ziren. Baita txamarrotea zer den, nolakoa den, non erabiltzen den eta noiz erabiltzen zen ere.

## 3. Entzungaiei buruzko galderi erantzun

- Entzun / ikusi bideo-erreportajea eta audioa.
- Talde bakoitzean komentatu zer ulertu duten eta ahalegindu ikasle guztiek informazio berdina izan dezaten.
- Taldeak nahastu eta binaka jarrita, informazioa trukatu dezatela ikasleek.
- “Ikaslearen orriak” betearazi.

## 4. Entzungaien inguruko informazioa osatu:

- Albokoarekin galderen erantzunak konparatu eta osa ditzatela ikasleek.
- Denen artean zuzen ditzatela erantzunak.

### Erantzunak:

#### ANTERO ETA SINKER

##### 1.- Nongoak ziren Antero eta Sinker?

Lekeitiokoak ziren bi gizonak.

##### 2.- Zer zen Antero? Eta Sinker? Aipatu bakoitzaren ezaugarri bat.

Antero, arrantzalea; Sinker, berriz, Singer markako josteko makina bat konpondu zuen herriko gizagaixoa, bibote handia zeukana.

##### 3.- Zer da tximinoia?

Tximinoia txapiroia da.

#### TXAMARROTEA

##### 1.- Zer da txamarrotea?

Txamarrotea Lekeition erabiltzen den/zen jaka moduko bat.

##### 2.- Nolakoa da? Zerez egina dago? Zein ezaugarri ditu?

Oihal urdin ilunez eginda dago, sorbaldetan jositako zatia behera begira, ukondoetan bihotz formako txaplatak eta paparrean, patrikaduna. Gizonek janzten dute eta dotorea da.

##### 3.- Non eta noiz erabiltzen da?

Lekeitiarrek oso eurena sentitzen dute txamarrotea, baina aspaldian kalean gutxi ikusten den jantzia da. Kuadrillaren batek, hala ere, domeketan txamarrotea jantzita irteten du oraindik Lekeition.

Informazio osagarria, [helbide honetan](#) aurkituko duzu.

**Transkripzioak:****Lekeitioko txamarrotea (03:16)**

**Nieves Erkiaga jostuna.** 14 lako sorbalda, atzean luze bi, 76. 121.

**Esataria.** Txamarrotea txiki gelditu zaio Juan Mariri. Eta horregatik dabilkio jostuna neurriak hartzen txamarrote berria egiteko. Baina kapritxo ote da?

**Juan Mari Endeiza.** Derrigor egin behar da, ze(ren) hori ez da kapritxo, hori da reivindicación (aldarria): txamarrotea lekeitiarrentzat.

(abestia)

*Anteron txamarrotia,*

*Sinkerren bibotia,*

*Haretzek ei dauko (omen dauka)*

*Preso tximinoia. (txipiroia)*

**Esataria.** Jaka urdina da txamarrotea, lekeitiarrek oso eurena sentitzen dutena, baina aspaldian kalean gutxi ikusten den jantzia. Kuadrillaren batek, hala ere, domeketan txamarrotea jantzita irteten du oraindik Lekeition.

**Javier Erdocia.** Pixka bat dezente edo joan behar den tokietarako be (ere) ondo dago. Ondo irizten ja (zait) niri. Eta gainera uste dot (dut), ba, hau ez galtzeko jantzi bat dela eta horrexegatik jazen dot (dut).

**Bazkaltiarra.** Atzeko horrek...

**Nieves Erkiaga.** Nik nire aitari beti entzun deutsot (diot) beren aita eta kuadrilla zelaz jantzen ziren: abarketa zuriak, mil rayasko (milarraiazko) prakak eta txamarrotea. Eta hori zen ba jantzeko eguna. Ez egunean-egunean, egun seinalatuak edo.

**Esataria.** Eta Lekeitioko txamarrote dotoreak baditu bere ezaugarri propioak.

**Nieves Erkiaga.** Hemen eroatez, eroatez, da azul marinoa (itsas urdina), painua (oihala) azul marinoa (itsas urdina) da. Lekeitiarrena da, hau edukitzen d(a)u hau, goiko zatia, sorbaldako zatia, batzuek gorantz begiratu eta botoiagaz (botoiarekin), baina lekeitiarrena da beherantz begiratu txaplata, eta eskuz josi(ta)koa da dena.

**Esataria.** Botoirik gabe, eta ukalondoetan ere txaplatak (ukondoak), bihotz formakoak.

**Nieves Erkiaga.** Bihotzak gizonak, eta bihotzean...

**Esataria.** Paparrean, patrika (sakela, poltsikoa).

**Juan Mari Endeiza.** Gero, gerora aparezitu (azaldu) ziren, nik diodan modura ba, montañeroak edo mendigoizaleak, eta domingeroak eta hasi ziren ekartzen beste txamarrote koadroduna, zuria edo gorria eta baltza (beltza), berdea eta baltza, eta hori. Eta hori be (ere) txamarrotea da. Baina bilbotarrak etorri... Klaro (jakina) bilbotarrak edozer esan leike (lezake) eta edozer, eurek diñoten (dioten) modura, eta deitu deutsote (diote) kaiku. Eta hori ez da kaiku.

**Esataria.** Kaikua, hau da. Eta hau txamarrotea. Lekeition ez zaie gustatzen txamarroteari kaikua esatea.

(abestia)

*Anteroi txamarrotea,*

*Sinkerren bibotea...*

**Esataria.** Juan Mari Endeizak Lekeitiko kontuak eta kantuak bildu eta idatzi egiten ditu galdu ez daitezten.

**Juan Mari Endeiza.** Antero zen, zelan, Klotilde Beitiakoaren aita.

**Nieves Erkiaga.** Bai. Aita.

**Juan Mari Endeiza.** Nik ez neban (nuen) ezagutu, baina hemen ezagutu bere alaba eta bai, ezagutu izan genuen denok. Hauxe zen Antero.

**Esataria.** *Estudiantinan* (Lekeitioko estudiantina errondailan) izan ezik Lekeitioko gazteek gaur egun txamarrotea jaztea zaila izango da, baina kalean gehiago ikusiko balitz, orduantxe bai Juan Mari pozik!

**Juan Mari Endeiza.** Bueno ba, nire gogoa por lo menos (bederen) aintzat hartu, eta herrian jende nagusiak edo erdi-nagusiak edo holakoak, pues, ostera be (bada, berriro ere) gazteak ba... Ze(ren) gainera, prenda elegantea da, (jantzi dotorea da), elegantea da. Eta herrikoa.

### **Antero eta Sinkerren istorioa: Xabier Gezuragari elkarrizketa (08:33)**

ARANTZA IRIONDO IRAKASLEA.- Bueno, Xabi.

XABIER GEZURAGA IRAKASLEA.- Bai.

A.I.- Zu Lekeitiarra zara, ez?

X.G.- Bai.

A.I.- Eta, nik entzunda daukat, e, abesti ezagun hau "Anteron txamarrotia" Lekeition sortutakoa dela. Ba al dakizu nondik nora datorren abesti hau, edo hor bertan agertzen diren pertsonaia horiek nortzuk diren edo ezagutu dituzu, edo... zer dakizu horri buruz.

X.G.- Bueno, nik, ba, batetik, ez dakit, Lekeitiar gehienok edo dakiguna edo. Ba, horko... hor agertzen diren bi pertsonaia horiek bere sasoian herriko pertsonaia ezagunak zirela, ez. Eta gero irakurri ere zeozer egin dut horren gainean, ba, batez ere, hori, euren izenak zeintzuk diren osorik, eta zelan gertatu zen edo nondik zetorren Sinker goitizen hori, eta, bai, orduan, nahi baduzu, nik neuk dakidan apurra, ba, esango dizut.

A.I.- Bale, ba lehenengo kontaguzu, zein zen Antero eta txamarrotia zer da? eta tximinoia eta gauzatxo horiek, aber, kontaguzu.

X.G.- Bai. bueno, kantan agertzen diren, ba, berba halako gakoak edo inportanteenak horrexek dira, ezta? Batetik Antero eta Sinker, pertsonaiak eurak, eta gero, txamarrotia eta bibotia, eta azkenik, tximinoia. Orduan, bost berba horiek dira bertso hau, ba, bertso honetan klabeak, edo, ezta? esango genuke.

A.I.- Txamarrotia, ba, jakingo duzu beharbada, horrelako jantzi bat da, jaka, jaka bat da, urdin kolorekoa eta berezitasun batzuk dituena. E... garai hartan asko erabiltzen zen eta Antero, ba, antza denez, ohitura zeukan txamarrotiaz ibiltzeko. E, bestetik, esan dugun moduan, ba, Sinkerren bibotea agertzen da hor. Ba, bibotea, pertsona horren ezaugarri, ba, nabarmenena zelako edo.

Bibote, halako luze eta e... ba, fina, eta, ez dakit, hegal handikoa zeukan, ezta?.

X.G.- Nik argazkia ikusi dudanean, Daliren bibotea etorri zait burura.

A.I.- Bai, bai, horrelako zeozer, e? Daliren bibotearen, ba, itxura hori zeukan, bai.

X.G.- Bueno, gero, pertsonaien, euren izenak.., ba, antza denez, Antero moduan agertzen den hau zen, e... Luis Antero Iturraspe Salinas, eta ogibidez edo, ba, arrantzalea zen bera. Arrantzalea, eta gero zahartzaroan ere, ba, bere txalupatxoan edo itsasoratzeak egiten zituena, egiten zituena, batez ere, ba, tximinoia (txipiroia) hain preziatua den ba, itsasoko altxor horren bila, e, tximinoiaren (txipiroiaren) bila edo tximinoia (txipiroia) harrapatzen, ezta? Joaten zen. Tximinoia (txipiroia), bueno guk tximinoia (txipiroia) esaten dugun hori, beste leku batzuetan txibixa (txibia), Ondarrun esate baterako, ta, bueno izen bat baino gehiago hartzen du.

Txipiroia denok ulertzeko moduan esanda, ezta? E... Orduan, itsasoratze horretan, ba, tximinoia (txipiroia) harrapatzen joaten zen, tximinotan (txipiroitan), bai, sarri antza denez. Orduan, batetik hori, Anteroren zaletasun hori, eta bestetik Sinkerren biboteak, ba, lotzen dute bertso honen gune hori, ezta? E, Sinker hau zen, antza denez., ba.. aurreko

A.I.- Sinker, berez, ez da izena, ezta? Ezizena da.

X.G.- Ez, ez, bai, bai, ezizena da, gaitzizena da. Antza denez, aurreko mende hasieran edo 1800 eta, 1800eko ba, hondarrean, ba, etorri ziren Lekeitiora Madrilako familia bat bizi izatera. Bai, han bizi izaten eurak komertziantek edo ziren ogibidez, eta azkenean ba, Lekeition gelditu ziren bizi izaten. Hau Sinker gaitzizena zeukan hau, ba, zen seme-alaben artean hirugarrena, eta abizenez Garzia, Garzia Ara, uste dut. Bueno, Sinker gaitzizena nondik etorriko? Ba, antza denez, mutil edo hau, txikitan gaixotasun bat pasatutakoa zen, eta gaixotasun horrek eraginda edo, ba, ez zen gauza bere bizimodu normala egiteko, hau da, beharrean eta. Orduan, asko ibiltzen ei zen kalean eta, badakizu, ba, kalean dabilena, ba azkenean bihurtzen da herriko, ez dakit ba, barreak eragiteko gune edo, ezta? Orduan, ba ezaguna zen alde horretatik. Baina, klaro, familiak ikusita ba, euren semea kalean egun guztian eta, ba, ez zela hori fundamentua, ganora... ikusirik, bere aitak edo, tailer batera joan eta hango ugazabari, beren ezaguna antza, ba, esan ei zion ea seme horrentzako, ba, beharren bat edo, bai? Emango zion seme horri, bakarrik janari truke, bai, hau da, ordaindu barik, baina hantxe denbora emateko bada behintzat Eta hasi zen ba, beharrean zerau, mutil hau, eta halako batean, beharrean zegoela, agertu zen andrazko bat Sinker markako, Singer markako josteko makina bat bada, bai. Tailerreko ugazabarengana joan eta ea ba hura konpontzera zekarrela eta ugazabak di(n)otso (esaten dio) egun onean zetorrela, ze hain zuzen be, egun horretan hasi ei zen beharrean tailer horretan injineru berri bat. Eta han mutilari begira, esan ei zion andre honi ba joateko injineru horrengana. Eta injineru a zen gure mutil hau. Bueno, ba, horretara joan andre hori eta ugazabak bitartean, ba barrezka, ezta? Badakizu, e, eta mutil honek makinari begiratu batetik, begiratu bestetik, ikutu (ukitu) hemen, igurtzi han, eta ba, ez ezagutzen zuelako zela konpondu edo, baina, hori konpondu beharra edo. Eta ikutu (ukitu) han eta ikutu (ukitu) hemen, eta azkenean ez dakigu zelan, ba makina hori martxan ipini zuen. Eta harrez gero galdetzen ziotenean ba, zein zen bere ogibidea edo, edo bere ofizioa, ba berak erantzuten ei zuen Singer makina konpondutakoa edo konpondurikoa dela, eta horrela geratu zen Sinker gaitzizenaz.

A.I.- Bale ba,

X.G.- Bueno, istorio luzetxoa izan da, igual.

A.I.- Ez, baina oso ondo eta inoiz jakin gabeko datuak eman dituzu; beraz, mila esker Xabier eta beste bat arte!

X.G.- Bueno, ba nahi duzuen arte!